

Getxo >MEETING<



Apirilaren 26ko GetxoMEETINGa

Eta zuk, zer egiten duzu zure negozioko sare sozialei etekin hobea ateratzeko?

GetxoMEETING, sare sozialak hobeto kudeatzeari buruz. Hona hemen taldean atera ditugun 8 ondorio nagusiak.

Joan den ostegunean, apirilak 26, beste behin ere kafe bat eta pintxo bat konpartitu genituen negozio propioa duten pertsonen artean, elkarrizketa atsegin batek lagunduta. Haietako askorentzat lehen aldia zen hamabostean behin egiten den topaketa honetan. “Giro onarekin” eta ikasi zuten guztiarekin ezusteko bikaina hartu zuten. Haietako askorentzat oso saio emankorra izan zen, eta Getxolanen egoitzara hurbildu zirenen artean hainbat klabe atera ditugu. Hona hemen:

1. Lehenik, estrategia: Zer eta zein sare sozialetan komunikatu nahi dugun jakiteko, lehenik eta behin pentsatu behar duzu zure negozioak zein balio ordezkatzan dituen, eta zein publikori zuzentzen zaion. Denean bezala, sareetan estrategia da garrantzitsuena. Izan ere, sareak ezberdin erabiltzen ditugu publiko eta egoera bakoitzerako, sare bakoitzak bere ezaugarriak dauzkalako. Eta pertsona bakoitzak sareetako bakoitzean gauza ezberdinak bilatzen ditu.

2. Sare guztiak ez ditugu gailu guztietan ikusten. Pertsona askok aplikazioa sakelako telefonoan daukate deskargatuta, baina beste sare sozial batzuk ordenagailuan kontsultatzen dituzte, etxera iristean. Eta pertsona guztiek ez daukate sare guztietako jakinarazpenak aktibatuta. Beraz, bi sare sozialetan zerbait partekatzeak ez du zertan zure publikoa nekatu behar.

3. Argazkiak, bideoak eta ondo idatzitako testuak. Komentatu dugu interneteko bilatzaile nagusiak eduki batzuei lehentasuna ematen diela beste batzuen aldean, eta batez ere gauza bisualetan duela interesa, baina baita testu ezberdinetan ere, eduki propioa dutenak.

4. Kantitatea ala kalitatea? Betiereko dilema. Bat etorri gara esatean maiztasun jakin bat behar dela, baina edukia interesgarria izan behar dela. Hobe gauza txukunak gutxiagotan, edozer gauza komunikatzea baino. Baina, denean bezala, bakoitzak bere errealtatera eta bere premietara egokitu behar du.

5. Edukiaren eta formaren arteko koherentzia: Irudiari bereziki loturik dauden balioak dauzkaten negozioetan, irudiaren koloreen eta testuren artean koherentzia baldin badago, gainerako pertsonak profesionalagoa eta bateratuagoa deritzote negozioari.

6. Informazioa partekatu, bai. Baina betiere egiazkoa dela ziurtatuta. Gogoan izan: artikulu bat partekatzeko, lehenik eta behin irakurri ezazu. Zerbait irakurri gabe partekatzea arriskutsua da. Bistan da.

7. A! Eta azken kontu bat: ortografia-akatsak saihestu, arren! Begi bistakoa dirudi, baina beti dago ondo testuak berrikustea eta akatsok zuzentzea.

8. Sare sozialak garrantzitsuak dira zure negozioarentzat, baina ez dira zure negozioaren arrakasta. Hau da, ez ditzagun nahastu eskuratutako *like* kopurua eta gure emaitza-kontua. Ondo dago sarean ikusgarri eta arrakastatsu izatea, baina argitaratze hutsak negozioari eutsiko diola pentsatzea nork bere burua engainatzea da.

Eta zuk? zer gomendatzen duzu sareak hobeto kudeatzeko? GetxoMEETINGen hurrengo saioan ikusiko dugu elkar.